

Betoz judutarrek Gasteizera



RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA
IRAKASLEA

Gasteizen, Espainiako Estatuaren mendeko beste hiri batzuetan bezala, bazen juderia bat, kale/auzo bat, non judutarrek bizi ziren. Kale hori Alde Zaharrean dago, *Barruko kale berria* du izena, jende gehienak gaztelaniazko izena erabiltzen duen arren *Nueva dentro*.

Orduko Gasteizko judutar biziak Juderian bizi ziren, eta judutar hilak Judimendin. Gaur egun, Judimendi auzo bat da, baina izena judutarren hilerrri zaharrari zor dio, gaur egungo Judimendiko parkean zegoena, eta parkea bera existitzearen arrazoi dena.

Espainiako errege-erregina (guztiz) katolikoek 1492an erabaki zuten beren erreinu kristauan judutar erlijioa pertsonak ezin zirela bizi eta Espainiatik egotzi zituzten. (Herritar musulmanekin gertatu bezala, eta, hala ere, euren erlijioa utzi eta katolizismoa onartuta ere, ez ziren inkisiziotik eta jazarpenetik libratu).

Gasteizko judutar biziak Baionara alde egin behar izan zuten, baina Gasteizko agintariekin hitzarmena sinatu zuten, ezen judutar hilak behintzat bakean laga zituzten Judimendiko hilerrian, gainean etxerik eraiki gabe. Gaur egun, parke horretan paseatu, jolastu edo etzaten garelarik, gasteiztar judutarren hezurren gainean egiten dugu.

500 urte baino gehiago igaro diren honetan, zaila da Baionara joan ziren ju-

duar haien ondorengoak nortzuk diren jakitea (denboraren poderioz, biderkatuko ziren, eta munduko edozein bazterretan zabalduko). Agian, pertsonaren batek froga lezake bere arbasoren bat Gasteizko Juderian bizi izan zela. Eta lortuko balu? Emango genioke etxe bat bertan, oraingo auzokideak beste norabait bidalita?

Wikipediaren arabera, judutarrek K.a. 733an, K.a. 597an, K.a. 63an, eta K.o. 132an egotzi zituzten Palestinatik. Ezinezkoa denez norbaitek frogatzea bere arbaso bat bizi izan zela Palestinan duela hainbeste denbora, Israelera joateko gutxieneko baldintza zure aita-amametako bat judutar erlijioa izatea da. Erlijioa, ez jatorria.

Zergatik ordaindu behar dute palestinarrek errege-erregina katolikoek edo Hitlerrek judutarren kontra eginiko genozidioa? Gainera, sionismoa sortu aurretik, Palestinan musulmanak, kristauak eta judutarrek bizi ziren, Gasteizen ez bezala.

Nazismoa edo muturreko katolizismoa bezala, sionismoa garbiketa etniko bat egiten ari da –“jenderik gabeko lur bat, lurrik gabeko jendearentzat”– egin-tza burutu politikaren bidez: badakite denbora pasatzen denean injustiziarik handiena ere iraganeko historia bihurtzen dela, beharbada, kale edo parke baten izenean fosilizatuta. ●

Isil-isilik



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Emazte batek zendua den euskal idazle eta poeta bat akusatzen du, abusuak egin zizkiolakoan, eskolan zebilen nerabe garaietan. Erbia kitzikatzea, arrazoi du Gorka Bereziartuak. Beste edonor izan balitz, afera ez zen isilik geldituko, feministak eta ni barne, salaketategi bilakatuko ginatkeelako: aski dela, kontzentrazioa seietan udalletxe plazan, eta abar... Ohikoa, baina ez, horrelakorik ez da gertatu, errautsa tapiza pean gorde da eta kito!

Badirudi euskal literaturak heterodoxia *de facto* onartutako atea zabalik daukala: iragan egun batez, gure egu-

neroko izparringian, Mirande & Enbata astekariaren arteko harremanez idatzi artikulu baten karietara irakurri ditugu, gusturik hoberenean, Miranderen Hitlerri eta bere lagun naziei buruzko solas plaxentak, kontestualizatzerik gabe, ideologia hori, gure artean, naturala, banalizatua balitz bezala. Mirande idazle gisa bat da, baina hiritar gisa, ezin dira bere jaidura naziak komentatu?

Beleak eta eleak zuritzen gabiltzan bitartean, beltz-kaki koloreko Europa batean bizitzeko prestatzen ari gara: baietz istorio hau gaizki bukatu! ●